

SARTZE

dinamiko bat !



2023-2024 ikasturtea ikastuna izanen dela ematen du, baina baita kulturala, kirolaria eta herritarra ere. Biarritzeko Hiriak eskaintzen dituen jarduera pedagogikoen hautu zabalak haur biarritzarren ongizatean eragina du, eskola publikoko sei taldeetan.

Irailaren 4 honetan, 1059 haur biarritzarrek eskola publikoetarako bidea berriz hartu dute, Braou, Reptou, Michelet/Paul-Bert-Pyrénées, Vicor-Duruy, Thermes Salins eta Sévigné Jules Ferry eskoletan. Zifra egonkorra 2022ko sartzearekin konparatuz.

Horietarik ia 300entzat, hau da, CM1 eta CM2koentzat, berrikuntza bada ikasturte honentzat : Hezkuntza Nazionalako « Plan orthographe (Ortografia plana) » plantan ezartzea, ikasleen gaitasunak hobetzea eta kolegioan sartzeko hobeki prestatzea helburu duena. Horrentzat, egunero idazteko eta irakurtzeko gutxienez bi ordu ezarriak dira, baita gutxienez bi testu luzeren irakurketa ere (1000 hitz baino gehiago) aste guziz.

CM1ko ikasleek azterketa nazionalak pasatzen dituzte frantsesean eta matematikan, irakasleei hezkuntza erreferentziak emateko eta identifikaturiko zailtasunak azkarago gainditzeko. « Invitation aux Voyages (Bidaietarako Gonbidapena) » festibalaren ekipak CMko ikasleak gonbidatzen ditu Mediateka eta liburu dendetako apaletako ohoreak izanen dituen liburu bat idaztera kolektiboki!

Biarritzen, klase batzuk parte hartzen dute urtero « les Petits Champions de la Lecture (Irakurketaren Txapeldun Txikiak) » ekimen nazionalan, ozenki hiru minutuz nahi den testua irakurtzea xede duena.

Miarritzeko Hiriak plantan ezarritako arte eta kultura hezkuntza proiektu hauek (« EAC » Education Artistique et Culturelle), eskola edo eskolatik kanpoko jarduera originalak ikasleei eskaintzea dute helburu. Kulturaren bidezko loratzea da, baina baita kirolaren eta hiritartasunaren bidez ere. Hori horrela, 2023-2024 ikasturtean ere lehen Haur Kontseilua sortuko da, CM1eko ikasleek osaturiko demokrazia parte hartzaileko organo berri bat.

Eskolaz kanpoko erreferenteei esker, Ostalaritza eta Eskolaz Kanpoko komisioetan egindako kontsulta eta truke lanen bidez, Miarritzeko Hiriak gurasoak eta haurrak barne hartzen ditu eskola jardueren antolaketan. Koedukazio prozesuak zentzu osoa har dezan.

Haur eta GURASOEN BEHA

Eskolaz kanpoko erreferenteak, Ostalaritza batzordea, Eskolaz kanpoko batzordea: Miarritzeko hiriak gurasoak inplikatzeko dituzten haurren koedukazio eta haien jardueren antolaketan.

Aurten ere, Miarritzeko Hiriak eskolaz kanpoko erreferenteak inplikatzeko dituzten eskolatan bertan. Haien iazko iristea biziki baliagarria izan zen. Ezinbestekoa den funtzio honek, eskola gunean ari diren haur, guraso, irakasle eta kolektibitateko langile guzientzat, eskola eta eskolaz kanpoko koedukazioaren hobekuntza bermatzen du, koordinazio orokorra eskolen bihotzean irakasle taldearen bidez batera. Langileen profesionalizazioan eta familien segimenduan ere parte hartzen du.



© DELPHINE PERNAUD



Egurdiko tailerrak Victor-Duruy eskolan.

laz sortu eta ikasturte honen hastapenean ber-rituriko beste organo bat, Ostalaritza komisiok batzen ditu, oporrak aitzin, Stéphanie Gravé eskolako gaietarako laguntzailea, sukalde zentralaren arduraduna, dietista, Herriko Etxeko hezkuntza zerbitzuko agente bat, eskolaz kanpoko erreferenteak eta guraso taldeko ordezkari bat 6 eskola talde bakoitzarentzat.

INGELESA TAILERRAK

Komisio hori menuetan eta kantinaren antolaketan egin daitezkeen hobekuntzetan ari da (bazkaltzeko denboraren kudeaketa, otorduetan giro lasaia...). Gainera, dietistak hilabete guziz eskola batera joaten da menu orekatua egiteko lehen mailako gela ezberdinetako haurrekin. Urrian, ikasleek sentsibilizazio tailerretan parte hartzen dute dastamen Astean.

Eskolaz kanpoko komisiolari dagokionez, ikasturte hastapenean biltzen da gurasoek eskolaz kanpoko denboraren antolaketan parte har dezaten : goizeko eta arratsaldeko harrera, egurdiko pausa.

Haien proposamenak segituz, hizkuntza tailerrak (ingelese) gehituak dira aurten egurdiko tailerretan. Berrikuntza bat haurren irakaspeneren mesedetan.

Ikasle kopurua (2023/2024 IKASTURTEA)



AMA ESKOLA	LEHEN MAILA
↓	↓
Thermes Salins	
77	102
Séguigné/Jules Ferry	
65	106
Michelet/Paul-Bert-Pyrénées	
77	166
Victor Duruy	
58	141
Reptou	
71	79
Braou	
42	75
OROTARRA : 1 059 IKASLE	
390	669

VICTOR-DURUY ONDOTIK,

Braou eta Reptouko xantierrak 2024an



Victor-Duruy eskolako kanpoko eremu berri berriak.

© ATLANTIC DRONES

Braou eta Reptou eskolek operazio bereziak izanen dituzte eraikina berritzeko eta kanpoko eremuko birlandaretze batentzat.

Jean-Baptiste Harambiillet ezker pareta estaltze berriaren ondotik, ikasleei 200 m²-ko egiazko aterpea eskaintzen diena, Braou eskola prestatzen da aldi honetan zaharberritze osorako. Lanak 2024 bukaeran hasi beharko lirakeke.

Heldu den beste xantierra Reptou eskolari dagokio. Haurtzaindegia iparraldeko hegalean haurtzaindegi bat arramoldatzeko asmoz, azken horri harrera eginen zaio lehen mailako eraikinean 2024ko sartzetik goiti.

Oroitarazteko, joan den martxoan izan zen Victor-Duruy eskolako inaugurazioa. Lehen Hezkuntzako eraikin nagusia guziz berritua izan da, bere estalkietan plaka fotovoltaiakoak jartzearekin teiltatuetan eta gela polibalentearen birkonfigurazioarekin.

Bi kanpoko eremuak, PMR arrapala batekin

lotuak, osoki berriz pentsatuak izan dira ikasle eta irakasle taldearekin.

Zaharberritze hori Eskola Planaren lehen gauzatze handia izan zen, Hiriak agintaldian zehar 10 milioi eurotik gorako martxan jarritako urte batzuetako inbestitze programa bat.

Oporrak

• Omiaseinduko oporrak

Urriaren 21etik azaroaren 6ra

• Eguberriko oporrak

Abenduaren 23tik Urtarrilaren 8ra

• Neguko oporrak

Otsailaren 17tik Martxoaren 4ra

• Udaberriko oporrak

Apirilaren 13tik Apirilaren 29ra

• Udako oporrak

Uztailaren 6tik goiti



?

Galderak

Stéphanie Gravé,

Eskola, gazteria, haurtasun, eskola eta aisialdi zentroetako axuantea

Zein helburu badu haur politikak Biarritzen 2023-2024 ikasturte horretan?

« Agintaldia hasi zenetik Herriko Etxeko taldeak egindako aldaketa sakonak ondotik eskola eta eskolaz kanpoko hezkuntza edukiei buruz, ikasleen gurasoei kontsultaturik anitz aberastu direnak, gure eskolen zaharberritze operazioak segitzen ditugu, aurten, Braou eta Reptou eskolei dagozkien bi proiektu. Bakoitzak haurtasun estruktura baten laguntza izango du, haur ttipi (0-6 urte) eta haurtzarora (6-12 urte) biltzen dituen benetako zentroak eskaintzeko. Hortaz, Biarritzeko hiriak kontsulta lana egiten ari da partaide guziekin, gurasoei, hezkuntza taldeekin, eskolako ostalaritzarekin eta eskolako bizia taldeekin, lehen haur ttipi taldeekin lokalen arramoldatze inguruan, baina baita eskolako kanpoko eremuak landaretzaren inguruan ere, materia ekologikoak gehituz. Uros naiz, gainera, aurten Braou haur hezkuntzako egitura 8 toki gehiago ireki izanaz. Reptou eskola zaharberritzearekin batera, kanpoko eremu berde proiektu handi bat da, nun gurasoek aktiboki parte hartzen duten. Proiektu-deialdi bat ere bada haurtzaindegi inklusibo bati buruz.

Bestetik, gurasoei, eskolen inguruko eremuak segurtatzeko lanean ari gara, bereziki Michelet/Paul-Bert-Pyrénées eskolentzat proba proiektu batekin, noizbait ibilgailuen zirkulazioa hestean datzana. »



© ATLANTIC DRONES



Kirol praktika bultzatzea, bereziki « Haurra eta Ozeanoa »-rekin.

« Lumière(s) » 2021-2022an eta iazko « Fenêtre(s) » izeneko proiektuen ondotik, Biarritzeko Hiriak eta Hezkuntza Nazionalak arte eta kultura hezkuntzako ibilbide berri bat (EAC) zehaztu dute 2023-2024 ikasturtean zehar 6 eskola publikoetako 6 gelarako. Aurtengo gaia da « Denok ezberdinak ! ». Beraz, ikasleek toki ezberdinak bisitatuko dituzte, profesionalekin elkartuko dira eta obra kolektibo bat ekoiztuko dute, ikasturte bukaera Natacha Egoitzako baratzeetan erakutsia izanen dena. Benetako abentura hau erakusketen bidez eginen da, hala nola Malandain Ballet Biarritzeko 25 urteak ospatzen dituzten argazkiak, dantza tailer bat Ballet kidego biarritzarrarekin, edota irakurketa, zinema, arte historia, zientzia... eta gastronomia tailerrak !

LAN KOLEKTIBO BAT

EAC proiektuaren baitan oraino, « Invitation aux Voyages-Li(v)re en scène » deituriko festivalaren taldeak, irakurketa, antzerkia eta literatura sustatzeko urteroko ekitaldia, Biarritzeko CM1 eta CM2ko hiru klaseri esperimentzia literario paregabea bizitzeko eskaintzen die: lan kolektibo bat idaztetik irakurketa publiko egitera, argitaratu arte.

Aurten, Biarritzeko ikasleek gogotsu itxoiten dituzten beste momentuak, « En route pour la scène » publiko gazterako bigarren sasoiko

ikusgarriak. «Lehenengo sasoiak Biarritzeko eskoletako 2.500 ikusle baino gehiago erakarri zituen zuzeneko ikusgarriaren inguruan, norbanakoaren garapena eta elkar bizitzeko sustatzen dituen», oroitarazi du Maider Arosteguy auzapezak. Biarritzeko Hiriaren, Hezkuntza Nazionalaren eta elkartekide ugariren arteko lanaren fruitua, publiko gazte sasoi hau eskola orduetan eskaintzen da eta urririk diren 8 zuzeneko ikusgarri osatua da Colisée eta, azkenarentzat, Gare du Midin. Malandain Ballet Biarritzeko dantzarien aitzinean.

IKASLEEK SU OLINPIKOA ITXOITEN DUTE !

Miarritzeko Hiriak kirol praktika ere pusatzen du Biarritzeko ikasleen artean, gure hiriaren identitateari eta ondareari loturiko jarduerak fisikoen inguruan. Haurra eta Ozeanoa, Haurra eta Mendia, Haurra eta Bizikleta, Haurra eta Pilota, Haurra eta Futbola, Haurra eta Errugbia ondotik, aurten Biarritzeko eta Bidarteko 3. zikloko (CM1 eta CM2) ikasleei, golfaren inguruko kirol proiektu berri bat eskaintzen die. Aste batzuetan zehar jarritako ikaskuntza ziklo batek, azarotik apirilera, hautua emanen die pilota xuri txikiarekin trebatzeko hiriko bi ibilbideetan, Itsasargia eta Ilbarritz, bertako golf irakasle baten laguntzaz.

Hezkuntza Nazionalari loturik, Biarritzeko hiriak, ikasleak ere momentu pribilegiatu eta berezi baten dinamikan sartu nahi ditu : 2024ko maiatzaren 20an gure hirian Su Olinpikoaren iragatea, Pariseko Olinpiar Jokoen eta Paralinpiar Jokoen iragarpen gisa.

IKASLEAK, BAINA BAITA HERRITARRAK ERE

Jules Ferry-ko CM1 eta Reptou eta Thermes Salins-eko CM1/CM2 ikasleek iaz Herritartasun Gida bat idatzi eta gero, sartze honetan ikasleak izendatzeko prozesuari hastapena ematen zaio, beti CM1koak, Haurren Kontseiluan bilduko direnak. Bere lehen saioa urtarrilean izanen da .Desmarta pedagogiko eta eko-herritarrean, Ozeano klaseek aurten Braou eta Jules Ferryko ikasleei itsasbazterreko fauna eta floraren aberastasuna deskubriaraziko diete Biarritzeko Itsas Zentroarekin.



Horrez gain, belaunaldien arteko topaketak ere xerkatzen dituzte Biarritzeko ikasleek. Iaz, adibidez, klase batzuk euren burua gonbidatu dute Notre Maison izeneko EHPAD-era, bertako bizilagunei dantza ikusgarriak eta marrazki tailerrak eskaintzeko. Urrian, ikasle anitzek aktiboki parte hartuko dute, CCASen laguntzarekin, Aste Urdinean, gure zaharrenei haien jardueretan laguntzeko.



PROIEKTUA *Ciné Classe*

Ikusgarriaren Arte et Lanak Ordegi Egokituriko Klasea-ren baitan (CHAAMS), Ciné classe proiektua aurtan sortuko da. Helburua da haurrei ikus entzunezko teknikak ezagutaraztea film bat sortzeko etapa guztietan zehar, gidoia idaztetik eta muntaketa egitera, baina baita inguratzen dituzten irudiak ulertzeko eta deszifratzeko gakoak ematea ere.

« Publiko gazte » sasoia **LEGITARUA**

Ikusgarriak Coliséen, salbu maiatzaren 16 ta 17an Gare du midin.



- Azaroak 7, antzerkia : « Éclipse et coquelicot » (Une hirondelle Cie)
- Azaroak 16, musika : « Tilt » (Chapi Chapo & les petites musiques de pluie)
- Urtarrilak 16, musika : « Bonobo » (Cie Fracas)
- Otsailak 9, antzerkia : « Rat & les Animaux moches » (Cie Zig Zag)
- Martxoak 12, musika : « Le tour du monde en musique » (Belharra Trio)
- Apirilak 5, antzerkia : « Allo la Lune » (Cie du Bazar au Terminus)
- Maiatzak 3, antzerkia : « Au boulot ! » (Cie Contrechamp)
- Maiatzak 16 eta 17, dantza : « Mosaïque » (Malandain Ballet Biarritz)

Arte eta **KULTURA HEZKUNTZA (EAC)**

Eskolako edo eskolaz kanpoko jarduerak, topaketak, ezagutzen berezko eskuratzea: Biarritzeko Hiriak urtero bere ikasleentzat, Hezkuntza Nazionalarekin lankidetzan hertsian, plantan ezartzen dituen Arte eta Kultura Hezkuntza (EAC) proiektuaren hiru zutabeak.

EAC « Tous différents ! » izeneko ibilbideaz aparte, jarduera anitz badira. Adibidez, « Invitation aux Voyages » deitutako festibalaren taldeak CMko 3 klase engaiatzen ditu liburu kolektibo baten idazketan, " zu heroia zaren liburu bat", Amerika latinarekin kuadro gisa.

Proiektuari loturiko « Chimères » taldearen irakurketa ikuskizun moduko berreraikitze bat eskainiko zaie ikasleei, baita bertako argitaletxe batek argitaratutako liburuaren ale bat ere. Liburua Mediatekako apaletan sartuko da eta... liburu dendetan!

CM2ko klase batzuk ere « Les Petits Champions de la Lecture » operazio nazionalan parte hartzen dute, Mediatekak egokitu eta lagundurik. Ikasleen xedea : ozenki irakurtzea hiru minutuz haiek hautaturiko liburu baten pasarte bat.

Zinemaren unibertsoak beste proiektu batzuen kuadro gisa balio du. CP-CEko hiru klase « Cin'experts » (Zinema adituak) bilakatzen dira Miarritzen (Chacun son court, Fipadoc eta Nouvelles Vagues) antolatzen diren 3 zinemaldietan parte hartuz, baita Eskola & Zinema programan ere, lehen kultura zinematografikoa eraikitze eta lehen espiritu kritikoa garatzeko.

Urtarrilean Fipadoc izeneko festibalak hiru klaseri aukera ematen die zinemaldi baten unibertsoa eta dokumental generoa deskubritzeko, baita zuzendari batekin mintzatzeko ere. Azkenik, 2. Eta 3. Zikloko ikasle batzuk Mediatekak antolaturiko « Chacun son court » izeneko festibalaren film laburrak begiratzen dituzte, haien gustukoena hautatu aitzin.

HAURREN KONTSEILUA, *lehen aldikotz !*

2023-2024 ikasturtean Haurren Kontseilua sortuko da, demokrazia parte hartzailerako organo berria.

Biarritzeko gazteei haien kezkak eta beharrak entzunarazteko, ideiak partekatzeko, proiektu propioak sortzeko eta hiriaren alde engaiatzeko aukera ematen zaie.

Biarritzeko sei eskola publikoetako CM1eko ikasleek osatuko dute Haurren Kontseilua, orotara 12 eserleku binaka funtzionatzen dutenak. Urtean bi kontseilu izanen dira, kontseiluen artean, ikasleekin definitu beharreko

tematikoen inguruko lan bat eramana izanen da komisioan, ingurumena, belaunaldien arteko galdera, kirola eta eskolari lotuak.

Stéphanie Gravé, eskolako gaietarako axuantak eta Valérie Sudarovich, demokrazia parte-hartzailearen ardura duen zinegotziak, Biarritzeko ikasleei aurkeztuko diete dispositiboa. Ondotik, kandidatura dossier bat banatuko da, zeinetan hautagaiek beren motibazioa, programa eta eslogana azalduko duten!

Haurrek, bolondres gisa, hiru aste izanen dituzte hautagai deklaratzeko. Geroago, eskola bakoitzeko ikasleek beren eskolako bakoitzeko bozkatuko dute bikotea hautatzeko bi urteko agintaldi batentzat (CM1 eta CM2) proba urte bat barne. Ondoan, integrazio momentu bat, Herriko Etxeko bisitarekin antolatua izanen da, nun « hautagai txikia »-ren kit-a emanen zaien hautetsi gazteei. Haurren kontseiluaren lehen bilkura 2024an gertatuko da.